

ANGELUKO - IKASLEAK.

1997-98ko IKHAS. URTEA

OSOGUNEKO ERAKASKUNTZA.LEHENBIZIKO ERAKASPENA.

1

I ELHEKETA. Aste hantako solas-gaia.

1. Zertako Martin gaitza aipatua zen?
2. Nun bizi zen? Nun da Bidarra?
3. ARRUNTZA nun da.

II

MARTIN-GAITZA BIDARRIKO

Duela nunbait han mende pare bat, ba omen zen Bidarrain Martin-gaitza erraiten zioten gizon famatu bat. Ez zen ordu arte nehun ere ikusi haren indarra bezalakorik.

— Neskatoke gazteak ezkontzen zirelarik, hari gantzolarazten ziozkaten eskalapoinak; ezen orduan ezkont-egunean eskalapoinak bazerabilzaten andere esposek; harek lan hortako ez zuen ez marteilu ez bertze deusen beharrik: itzeak erhi hutsez sar arazten zituen.

Behin, frango hazkarra zen Arrunztar batek nahi ukan zuen Martin-gaitza ikusi. Joan zen Bidarrirat eta alor batean aurkitu zituen bizpahiru gizon iraulden ari. Heietarik bati galde egin zion nun bizi zen Bidarriko gizon-gaitza.

— Hantxet, harako etxe hartan ihardetsi zion itzainak. Eta haren erakusteko, golde-eskutila hartu zuen, makiltxo bat izan balitz bezala altxatzen zuelarik, uztarri eta idiekin batean.

Arrunztarrak hori ikusi-ta erran zion:

— Brr! Banago ez ote ziren zu Martin-gaitza!

— Ez dakit, erreferatu zion itzainak. Tinka ditzagun poxi bat eskuak.

Besteak eman zion eskua, bainan berehala oihuka hasi zen: itzainak odola jalgi-arazten zion ~~azkatzaletarik~~ azgazkaletarik.

— Ongi! Ongi! ez dut bertzerik galdatzen! Erran zuen Arrunztarrak, jakin nahi nuen guzia badakit!

— Bizkarrez itzuli zitzaion eta joan zen. Ez zen geroztik behin ere menturatu Bidarriko Martin gaitzarekin kausitzerat.

33. IZAN - Suppositif (Eventuel 3<sup>ème</sup> forme)

Ni	izan	banintz	= si j'avais été
Hi	izan	bahintz	= si tu avais été
Zu	"	bazine	= si vous aviez été
Hura	"	balitz	= s'il avait été
Gu	"	bagine	= si nous avions été
Zuek	"	bazinezte	= si vous aviez été
Heik	"	balire	= s'ils avaient été

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Erraiten zioten. 32. Bazerabilzaten  
33. Izan balitz 34. Banago.  
35. Ez dakit.

31. UKAN Conj. à dble complémentIndicatif - ImparfaitObjet sing. - Complément indirect singulierHari = à lui

Nik nion = je le lui avais

Zuk zinion = vous le lui aviez

Harek zion = il le lui avait

Guk ginion = nous le lui avions

Zuek zinioten = vous le lui aviez

Heiek zioten = ils le lui avaient

32. ERABILI - Indicatif ImparfaitHeiek = les

Nik nerabiltzan = je les utilisais

Hi herabiltzan = tu les utilisais

Zuk zinerabiltzan = vous les utilisiez

Harek zerabiltzan = il les utilisait

Guk ginerabiltzan = nous les utilisions

Zuek zinerabilzaten = vous les utilisiez

Heiek zerabilzaten = ils les utilisaient